

Sortzeen kontrolari buruz

E.: zu amatu zien urte horietan-eta, nola... Emazteak hasiak ziren sortzeen kontrolatzen, kontrazepzioia gauza hedatua zen ala ez oono? Or...

M.: ez dakit...

E.: mila beatzieun ta iutan oi urte undar orietan, mai soixante-huit or zen, bainan berdin barnekalde otan...

M.: hemen gure eskualdetan, bon, bearbada baziren, bana ez zen neor e bere berrien kondatzen artzen, zer egiten zuen edo nola debruiatzen zien eta kupliak, edo oriek denak, baizu, ilunpian zauden, lurpian, neok ez zin aipatzen eta olakoik eta ze pasatzen zen, ta orroitzen niz ni ordian oai emazte gaztiak, ta arrazoinekin, kontent dira haur bat bear jartzen dielaik, erraiten dute berek jakin bezan laster, bena lehen gordetzen zen ta bear zela gordetu, eta anitz emaztek eta espeantxetan izaitia gorde dute, ez beitziren eta otoizka ai izanak haur ua jin zadin, bana bein jinez geoz, ama batek, izan ziten bost ala hamar, denak maitatu tu, ta hazi, bana eta haurrak maite izanagatik emazteak e bear zien bizi, higatzen zen emaztia re, bon haur itiak e bearba ez zin hala igatzen, bana hazi bear baitzien, hori re hor da, eta lehen ez zen eta nehor artzen eta haurra bear zuela kantatzen, haurrak bere lekia hartzen zuela oartzen... « Te arek ere alakoak aurra behar », bana berak erranik ez zen intzuten, e ! ez ez, oriek denak leen itzalpian egoiten zien, oritaik ez zen deus e ateatzen kanpoat, ori... Mundu untan gauza ori izan ez balitz bezala ixil-ixila denak, eta nik frangotan erranik izan dut, bena zerbait erraitia, ez zen, gu bano leenogo ta leeno eta izan da aita bat eta ama bat eta hek ina da jendamendia e ori, bana nehok ez du gero re, oai, eta zonbait urte untan e, eta bearrik erraiten dute eta, « to ola aurra bear dila », ta zer da gauza ederragorik eta haur baten sorzia bano ? Bana lehen eldu baitzien nahi baon fitio ta nahi bano geioo re, ori anitz... Uste uzu hamalau, amost aurretaano ukaiten zin amak eta denak nai zituela, bana hola zen eta emaztekiak unartzen zitiin heldu zena, leen ez zen eta deus eta gauza orren giilatzeko, ta erlijionia bera re kontra omen zen, ez zinin gizon batekin harremanak behar ez bazinin aurrik ukan nai, hori ala entzun dugu guk, gero ez dakit gauza orrek indarrrik ukan din ondoko jenerazionetan, e! Zeen eta oaiko emaztek ez dute sobera haur eta... Sobera jendamendu re, jende re heldu balin bada, ez da untsa ori re, bear da, oai erraiten dute sobera jende jartzen ai giela, ez dakit ni, ez dut kunduik iten nik, ez niz kapable, bena ez, ez, hori, haur eta ukaite ori, alo, espeantxetan jarze ori ta bu, ez zen erran bear e, badakit niaun gustuz, niauri eta emazte batek eta erranik, eta ari erran hiru ilaite orduko espeantxetan e, a, ez zela erran bear e. Zera zuten, gero eta

zonbaitzuk eta auzoko gizon batek eta erran zaan olako emaztiak “ ba aurra sortuko ixi orrek neok zautu gabe”, azkarra emaztekia ta denak.

E.: ba ta kulturan zen.

M. : kulturan zen, ba, ba, lehen ola... Hola zen, ez zen... Gu entzun tuu leeno leeno haurrak baatzian azen pian ta sortzen ziela ta haurrak sinetsaazten ta gauza orik entzun tut, nik ez dut entzun e, ene denborako orik denak ze inak zien, na guk biziki, orai eta aspaldiko urtetan aurridera geien bat badelaik eta amak beste aur bat bear dilaik, aurridera geienari kusi tut eakusten bere aurridera ttipia an dela barne artan ta pe... Lehen jinko maitia ta olakoik ez zen egin bear, e! Ta gero aurridera geienek bearba haurra eldu zelaik baziuzten jelosko edo izaiten aal zien, oai e ba berdina e, ez dakit, nik ez tut oaiko gauzak eta kusten, e!

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala